

# BRUCE DAVIDSON

Erakusketa ibiltaria posiblea izan da Terra Foundation for American Art-en laguntzari esker

Fundación **MAPFRE**

**TERRA**  
FOUNDATION FOR AMERICAN ART



## HURRENGO ERAKUSKETA

ERTIBIL BIZKAIA 2018ko maiatzak 17 - uztailak 1

### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.eus

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



**Bizkaia**  
rekalde aretoa

Euskera


# BRUCE DAVIDSON

2018ko otsailak 5 – maiatzak 6

*Kamerako leiarraren bidez topatu nuen nire bidea bizitzan.*

*Munduari buruzko nire sentimenduak adierazteko erabili nuen. Eta oraindik egiten dut hori.*

BRUCE DAVIDSON



Coney Island, New York, 1959. © Bruce Davidson/Magnum Photos

**rekalde** Alda. Recalde, 30 - 48009 Bilbao - Tfno. +34 94 4068532 - www.salarekalde.bizkaia.eus

Bruce Davidsonen (Chicago, 1933) argazkilari humanistatzat jotzen du bere burua: bere bizitzaren filosofia errealtatearekiko duen harremanean oinarritzen da. Hori da mundua eta argazkilaria batzeko obra baten oinarritzeko gaia; ingurunearekiko duen pertzepzioa erakusten du, bere nahia eta balio-sistema. Horrek guztiak definitzen du, jorratzen dituen estilo edo gai zehatzen gainetik. Erakusketa honetan berrogeita hamar urtetan egindako lana ikusi ahalko da, eta teknika, prozesu, gai eta erabileren hautaketak askotariko obra erakutsi arren, munduari buruz duen ikuspegiak batuko ditu eta hark emango dio koherentzia, argazkitan ateratako pertsonen eguneroko bizimodua garatzen den ingurune pobre eta larrien aurrean duen konpromiso etikoak.

Azken hauek AEBko argazkilaritzan nahiz herrialdearen historian bertan ere hamarraldi biziak izan dira, eta Davidsonen obra, bere ikuspegiak duen indarrari eta barneratzeko gaitasunari esker, bere garaiko ikonografiaren zati bihurtu da; haren ondorengo belaunaldientzat ere erreferentzi bihurtu da. Bere argazkilaritzaren sendotasuna sortzen da, bere gaietako protagonisten mundua osatzen duten irudien errepikapenak eragindako pilaketari esker. Gai horiek sortatan tratatzen dira eta batzuetan denbora luzez zabaltzen. Intimitatea partekatzen dugu haiekin, eta intimitate horretara Davidsonen presentzia karismatikoaren bidez heldu ahal izan da, bere konfiantza erraztasun handiarekin eskuratu zuena, gai gatazkatsuenetan egonda ere. Bizitza pribatuak naturaltasun osoz erakusten dira eta honako hau adierazten dute: lankidetzeta, elkarrekiko konpromisoa, bilaketa prozesua eta egilea ezagutzea gu ikusle pribilegiatu izanik. Ez du argazki bat lapurtzen inoiz; intimitatean sartzea lortzen du, baina inoiz ez intrusio modura, adostuta baizik.

Davidsonen xehetasunari erreparatzen dio eta gehiegizko sentimendu, moral edo errukiak ez ditu gogoko; ez du asmakuntza dramatikorik eranstean, bere bizitza osatu duten funtsezko gaiak ikuspegi poetiko batekin, soiltasunez deskribatzen ditu: ingurune marjinalak batzuetan eta 1950eko hamarraldi amaierako AEBko kultura bisualean ez daudenak ia, baina argazkilari batzuek ikusarazten ahalegindu ziren beren ikuspuntu pertsonalak baliatuz. Bere herrialdearen historia irudiekin eraiki da, eta argazki ikono horietako batzuk –historia eta gizarte amerikarra ulertzeko ezinbestekoak– areto honetan aurki daitezke: Davidsonen bere argazkien bidez bizitako istorioak, eta haietan amets amerikarraren esperantzak eta porrotak suma daitezke.

Carlos Gollonet, erakusketaren komisarioa



The Selma March, Alabama, 1965. © Bruce Davidson/Magnum Photos